



“BERMEO, PERTSONA NAGUSIEKAZ HERRI LAGUNKOIA”

DIAGNOSTIKO TXOSTENA 2016



BIZITZEN
FUNDAZIOA



AURKIBIDEA

1. HERRI LAGUNKOIA PROIEKTUA

1.1. HERRI LAGUNKOIA PROIEKTUA

1.2. METODOLOGIA

2. BERMEO, PERTSONA NAGUSIEKAZ HERRI LAGUNKOIA: DIAGNOSTIKOA

2.1. BIGARREN MAILAKO ITURRIEN AZTERKETA

2.1.1. Datu soziodemografikoak

2.1.2. Gizarte baliabideak

2.1.3. Proiektu, Plan eta Programak

2.1.4. Eragileak

2.2. EMAITZEN AZTERKETA: LAGUNKOITASUN GALDE-SORTA ETA TALDE FOKALAK

2.2.1. METODOLOGIA

2.2.1.1. Lagunkoitasun galde-sorta

2.2.1.2. Talde fokalak: eraketa

2.2.2. EMAITZAK

Alderdi orokorrak

1. Aire zabaleko guneak eta eraikinak

2. Garraioa

3. Etxebizitza

4. Sareak eta gizarte-laguntza

5. Enplegua eta partaidetza

6. Errespetua eta gizarteratzea

7. Komunikazioa eta informazioa

8. Gizarte- eta osasun-zerbitzuak

9. Gogobetetzea

3. ERANSKINAK

3.1. DIPTIKOA

3.2. KARTELAK

3.3. ARGAZKIAK

3.4. GALDE-SORTA

1. HERRI LAGUNKOIA PROIEKTUA

1.1. HERRI LAGUNKOIA PROIEKTUA

Bermeo Lagunkoia programa Euskadi Lagunkoia Sustraietatik sareari atxikita dago. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak jarri zuen martxan sarea, Matia Institutuaren laguntza teknikoarekin, eta herritarren eta sektore publiko, pribatu eta sozialaren partaidetza sustatzen du Euskal Herrian lagunkoitasunaren mugimendua garatzeko, adinekoei bizimodua erraztuko dieten inguruneak sor daitezen.

Proiektua Osasunaren Mundu Erakundeak martxan jarritako «Age-friendly Environments Programme» ekimenean oinarrituta dago.

Helburu espezifikoak:

- Euskadiko herri eta hirietako bizitzan adinekoek ongizate-sortzaile gisa duten ahalmena aprobeztatzea.
- Komunitatean parte hartzeko prozesuak sortzea eta sustatzea.
- Euskadin lagunkoitasun-ekimenen sarea sortzea.
- Inguruneetan aldaketak ahalbidetzea, bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetze aldera.


Adineko pertsonetikiko lagunkoitasunaren mugimendua Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) bultzatuta sortu zen, 2005ean, Rio de Janeiroko Gerontologiaren XVIII. Mundu Biltzarrean, Age-Friendly Cities izenarekin. Ekimen honen ideologoak, Alexandre Kalache doktoreak (une hartan OMEko Ageing and Life Course programako zuzendaria), munduko biztanleria garaikidearen bi joera bereizgarri hartu zituen oinarri gisa programa hau martxan jartzeko: zahartze demografikoa eta urbanizazio prozesua. Gero eta gizarte zahartuagoetan eta gero eta ingurune urbanizatuagoetan, alegia hiri handietan, bizi gara. Ekimen honen asmoa bi joera horiei erantzuna ematen saiatzea da, adineko pertsonak eskaintzen duten potentziala ahalik eta gehien aprobeztatzeko helburuarekin. Herritarren parte-hartze prozesu handi bat sustatu nahi da, adineko pertsonak protagonista dituen (ongizatearen sortzaile gisa).

Ekimen hau 2002an II. Zahartzaroaren Munduko Batzarrean, "Zahartze aktiboa, esparru politiko bat" dokumentuan, zehaztutako zahartze aktiboaren paradigmak barne

hartzen duen teorian oinarritzen da. "Zahartze aktiboa osasun, parte-hartze eta segurtasun aukerak optimizatzeko prozesua da, pertsonak zahartzen ari diren heinean beren bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin" (Active Ageing: A Policy Framework. Geneva, OME, 2002)

Adineko pertsonetako hiri lagunkoi batean, politikek, zerbitzuek, inguruneek eta egiturek pertsonen zahartze aktiboa babesten eta errazten dute. "Adineko pertsonak kontuan hartzen dituzten ingurune fisikoek independentziaren eta dependentziaren arteko aldea zehatz dezakete" (OME, 2002)

Zahartze prozesua: adinaren eta gaitasun funtzionalaren arteko erlazioa (Kalache y Kickbusch, 1997)



Iturria: Euskadi Lagunkoia Sustraietatik. Udalerrietan ezartzeko eta erabiltzeko gida praktikoa.

Gaitasun funtzionala haurtzaroan garatzen da, heldutasun goiztiarrean iristen da bere goreneko puntura eta zahartze prozesuarekin batera murrizten da. Murrizte tasa hori, hein handi batean, bizi estiloarekin eta pertsonaz kanpoko faktore sozial, ekonomiko eta ingurumenekoekin lotuta daude. Banakako erabakiek eta politika publikoek (esaterako, adinarekiko ingurune lagunkoi baten sustapena) eragina izan dezakete gainbehera horren abiaduran eta, kasu batzuetan, gaitasuna leheneratu ere egin dezakete. "Ingurune lagunkoi batek bizitza independentea, zahartze aktiboa eta autonomia pertsonala sustatzen ditu, osasun, parte-hartze eta segurtasun aukerak hobetuz; betiere, pertsonen kalitatea hobetzeko helburuarekin"


Zahartze aktiboa pertsonen zahartze prozesuaren kalitatea hobetzeko aukera bat da. Zalantzarik gabe, zahartze aktiboak eragin zuzena du norbanakoen gaitasun funtzionalari eusteko ahalmenean, horrek dakartzan abantaila guztiekin (maila pertsonalean, familiakoan edo sozialean).

Programa honetan, adineko pertsonak ongizatea sortzeko prozesu baten protagonistak dira. Ongizate horrek gure eguneroko bizitzan eragina izango du, espazio publikoak zentzuz berreskuratzea eskatuko du, herritarren harremanetan eta zaintzen transferentzian eragina izango du, etab. Azken finean, udalerriko eguneroko bizitza denentzat pixka bat onberagoa eta pozgarriagoa izan dadila ahalbidetzen duten gauza txiki horietan guztietan eragingo du (Iturria: Euskadi Lagunkoia Sustraietatik. Udalerrietan ezartzeko eta erabiltzeko gida praktikoa).

1.2. METODOLOGIA

Proiektuak lau fase jasotzen ditu bere metodologian: plangintza, plana gauzatzea, egingako prozesuen ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza.

4 FASEko zikloa



Iturria: Euskadi Lagunkoia Sustraietatik. Udalerrietan ezartzeko eta erabiltzeko gida praktikoa.

Gauzatze-zikloan lortu nahi da proiektua bere egiten duten udalerriek beren egiturak eta zerbitzuak egokitu ditzaten, irigarriagoak izateko eta beharrian eta gaitasun desberdinak dituzten adinekoak aintzat hartzeko.

2004.urtetik aurrera Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuak zahartze aktiboa sustatzen duen programa ezbardinak egin ditu: Bizitasunez bizitzen hitzaldiak, Gorputza Martxan, Burua Martxan eta Dementia fase arinean daukientzat Psikoestimulazio tailerra, besteak beste. Udalerri adeitsua programarekin aurrerapausu bat emon nahi izan da sustatze horretan eta horregaitik bere konpromisua adierazi du.

Proiektu honetan, OMEren metologiaren ezarpen-zikloko faseetan jasotzen diren jardueretatik, Plangintza fase barruan dagoen **Udalerriaren adeitasun-mailaren diagnosia egitea** erabaki zuen 2016an Bermeoko udalerrian. Zikloa hasteko lehen pausua diagnostikoa egitea beharrezkotzat hartu zuen.

Hemen aurkezten den jardueraren helburu orokorra hurrengoak izan da:

- Helburu orokorra: Bermeoko adeitasun-mailaren diagnosia egitea.
- Helburu zehatzak:
 - Bermeon, Udalerri adeitsuak programa aurkeztu eta zabaldu.
 - Bermeon eskuragarri dagoen informazio guztia bildu, bai alderdi soziodemografikoei dagokiena bai bertan parte hartzen duten eragileena edo garatzen ari diren programena.
 - Herritarrekin Bermeoko lagunkoitasun mailari buruz eztabaidatu, ideiak bildu eta proiektua garatzeko lantaldeak osatzeko herritar liderrak identifikatu.
 - Bermeoko lagunkoitasun maila ezagutu, herritarren eskutik, adierazle kuantitatiboak erabiliz.
 - Datu kuantitatibo eta kualitatiboak aztertu.
 - Datuen azterketa batu eta azaltzen duen txostena gauzatu.

Helburu zehatzei lotuta dauden ekintza, emaitzak eta tresnak hurrengo taulan adierazten dira:

HELBURU ZEHATZAK	EKINTZAK	LORTUKO DIREN EMAITZAK	TRESNAK
Bermeon, Udalerrri adeitsuak programa aurkeztu eta zabaldu.	Proiektuaren aurkezpena.	Herritarrei oro har eta parte-hartzaileei batez ere, programari buruzko informazioa emon.	Triptikoak.
Bermeon eskuragarri dagoen informazio guztia bildu, bai alderdi soziodemografikoei dagokiena bai bertan parte hartzen duten eragileena edo garatzen ari diren programena.	Bigarren mailako iturrien azterketa.	Udalerriri buruzko informazioa batu.	Udalerriri buruzko txostena.
Herritarrekin Bermeoko lagunkoitasun mailari buruz eztabaidatu, ideiak bildu eta proiektua garatzeko lantaldeak osatzeko herritar liderrak identifikatu.	Parte-hartzaileen gainekeo informazioa batu. Talde fokal saioak gauzatu.	Parte-hartzaileen txosten deskribatzaile bat lortu. Parte-hartzaileen iritziak (datu kualitatiboak) batu.	Parte-hartzailearen gainekeo informazio galdeketa. Foku taldeen galdetegia.
Bermeoko lagunkoitasun maila ezagutu, herritarren eskutik, adierazle kuantitatiboak erabiliz.	Lagunkoitasun Galde-sortak zabaldu eta jaso.	Parte-hartzaileen iritziak (datu kuantitatiboak) batu.	Galde-sortak.

Datu kuantitatibo eta kualitatiboak aztertu.	Datuen azterketa.	Datu kualitatiboak eta kuantitatiboak aztertu programa informatikoen bidez.	Transkripzioak eta datuen matrizea.
Datuen azterketa batu eta azaltzen duen txostena gauzatu.	Emaitzen txostena egin.	Datuen azterketa batu eta azaltzen duen txostena gauzatu.	Txostena.

OMEk ezarritako estandarren barnean edozein udalerri lagunkoitzat hartzeko gauzatu beharreko faseetako lehenengoa, adineko pertsonen, zehazki, eta herritar guztiei, oro har, eguneroko bizitzan aurkitzen dituzten arazoei buruz galdetzean datza, beren udalerrien alderdi negatiboak eta positiboak identifikatzen saiatuz.

Adineko pertsonak etapa guztietan parte-hartzaile nagusi gisa, alegia protagonista gisa, sartuko dira, beren egoera deskribatuz eta adieraziz edo aldaketarako iradokizunak eginez. Horrez gain, udalerrian identifikatutako arazoak konpontzeko ezarri behar liratekeen hobekuntza proiektuei buruzko erabakiak hartzen lagunduko dute. (Iturria: Euskadi Lagunkoia Sustraietatik. Udalerrietan ezartzeko eta erabiltzeko gida praktikoa).

Erabilitako metodologia Euskadi Lagunkoia ekimenaren baitan Matia Institutuak diseinatutako tresnetan oinarritzen da. Tresna hauek Osasunaren Mundu Erakundeak garatutakoen (**Vancouverko protokoloa**) egokitzapenak dira.

2. BERMEO, PERTSONA NAGUSIAKAZ HERRI LAGUNKOIA: DIAGNOSTIKOA

Udalerriaren diagnostikoa egiteko, informazioa biltzeko honako tresna hauek erabili dira:

- Bigarren mailako iturrien azterketa
- Talde-fokalak
- Lagunkoitasun galde-sortak

2.1. BIGARREN MAILAKO ITURRIEN AZTERKETA

2.1.1. Datu soziodemografikoak


Bermeo, Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoen herria da eta 34,1 km²ko edapena du. Bermeo lurralde menditsu batean dago. Alde batetik, Sollube mendiaren iparraldeko hegala itsasora begira dago. Lurra osotzen duten material gogorren eraginez itsasalde guztian lakar edo labar handiak dagoz, 100 metrora artekoak, baita hatx sakabanatuak be, Gaztelugatxe, Akatz eta Izaro uharteak adibidez. Itsasaldeak sarrera txikiak be badaukaz, Bermeoko portua bera edo Matxitxako lurmuturra, esaterako. Barruan, paisaia askotarikoa da, aldats handiekin. Tontorrik garrantzitsuenak Sollube (696 m.) eta Burgoa (452 m.) dira.

Kostaldean dagoenez, eta aldapa gogorrak gainditu behar diranez, udalerri hau ureztatzen duten errekek ez dute ibilbide bat ere baketsua. Beste batzuen artean, Akaga, Arronategi eta Etxebarria daukaguz. Portuko itsasartea eratzen dituztenak, hain zuzen be. Ekialde eta Hegoaldean, Arrieta, Meñaka eta Busturia; Mendebaldean, Bakio; eta Iparraldean, Mundaka eta itsasoa.



Uriburua herrigunea bera da, eta portu inguruan batzen dira biztanlerik gehienak (%95a). Beste auzo batzuk: Agirre, Almika, San Andres, Arane, Arranategi, Artika, Demiku, Mañu, San Migel, eta Gibelortzaga (San Pelaio) dira.

Biztanlego dentsitatea 496,11 biz/km²koa da.

Bermeoko populazioak etengabeko hazkundera izan du, nahiz eta azken urteotan geldiene txiki bat izan. Bermeok (2016) guztira, 16.709 biztanle ditu; biztanle horietatik 8.431 emakumezkoak eta 8.278 gizonezkoak dira.





Hori horrela izanik, zahartze indizea (65 urtetik gorako biztanleak) %22,32koa da. Beste era batera esanda, ia 4 lagunetik batek 65 urte baino gehiago ditu. Eta gainzahartze indizea (75 urtetik gorako biztanleak) %11,21ekoa da. Beraz esan daiteke Bermeo ere, Bizkaian gertatzen ari den moduan, zahartze-prozesuan murgilduta dagoela.



Erosteko Ahalmenari dagokionez, Eustateko datuen arabera 2014an EAEn bataz besteko errenta pertsonala 19.346€-koa izan da, Bizkaian, 19.082, eta Bermeon 17.444, ikusten den bezala Bermeoko datua bataz bestekoa baino 2.000€ baxuagoa da.

Errentaren datuak, batez be bi adierazle ezberdinetatik datoz, alde batetik lana eta bestetik babes sozialeko prestazioak (pentsioak eta gizarte zerbitzuetako prestazioak). Hau dela eta aztertu behar den beste datu bat pensioen onuradun kopurua da. Bizkaiko datuak aztertu ezker, zenbat eta nagusiago izan orduan eta pentsiodun emakume gehiago daudela ikusten da (Em: 32.812 Gz: 14.754). Gizonezkoekin konparatuta, emakumeen batz besteko pensioak baxuagoak dira eta ondorioz, euren erosteko ahalmena ere txikiagoa da.



Bermeoko industria sektorea modu estuan itsasoarekin, hau da, arrantzarekin erlazionatuta egon da.

Bermeo, historian zehar portuaren inguruan bizi eta hedatu den kostaldeko herria da. Hau dela eta esan dezakegu lehenengo sektorearen barruan arrantza izan dela herri honen ekonomia markatu duena.

70. hamarkadako amaieran, arrantza sektoreak beherakada bat jaso zuen, eta honen ondorioz herriko biztanleriak bestelako sektoreetan be aritu beharra zegoela ikusi zuten.

Hamarkada amaiera horretan krisiaren ondoriozko jarduera aldaketa nabarmenena izan zen, arrantza sektoretik industria sektorera hain zuzen ere.

Bermeon, lehenengo sektoreko jarduerak garrantzi handia dauka eta beste sektoreetan modu argi baten, eragiten du: Arrain fabrikak, itsasontzien piezak saltzeko dendak, ...


Hau dela eta ezin da ukatu Bermeo, tradizio nabarmeneko kostako herri arrantzalea dela, eta honek eragin asko izan du, gizartean, familian, ekonomian, denbora librearen antolatzerakoan...

70. hamarkadan arrantza sektoreak izandako beherakadarekin, Bermeoko biztanleria 2. eta 3. sektoreetara bideratu arren eta gaur egun industri mota ugari garatu diren arren, itsasoak eta honekin erlazionaturiko industriak garrantzia handia edukitzen jarraitzen dute, bai industri mota honetako kopuru eta tradizioagatik bai bertan aritzen diren langile guztiengatik.



Bigarren sektorean bestalde, arrantzarekin zerikusirik ez daukaten fabrikak eta jarduerak be garatzen dira Bermeon.

Bermeoko hirugarren sektorean ematen den jardueraren artean, adierazgarria da arrain salmentara dedikatzen diren denden zenbatekoa. Argi dago Bermeon arrantza sektoreak indar handia daukala, eta hau horrela izanda, honen inguruan komertzio asko sortu dira.


Hirugarren sektoreak, Bermeon, mundu garatua deitzen den eremu osoan bezala, pisu eta garrantzi handia dauka eta ekonomikoki sektore garrantzitsuena izatera heldu da.



Langabeziari dagokionez ezin dugu ahaztu krisi baten barnean gaudela eta Bermeo ez da kanpoan geratu. Langabezi tasaren batzbestekoa %9,72koa da. Nabarmenena da 16-24 urte bitarteko gazteen artean langabezia %9.89koa dala.





Hezkuntza mailari dagokionez grafikoan ikusten den bezala, biztanleriaren %48ak lehen mailako edo gutxiagoko ikasketak ditu.




2.1.2. Gizarte baliabideak

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak:

Bermeon 797 pertsona daude menpekotasun graduarekin. Honetatik %62 emakumeak dira eta %38 gizonak. Adinari dagokionez %70,89 (565 pertsona) 65 urtetik gorakoa dira.



Sexuari dagokionez, menpekotasun gradua daukaten emakumeak (407) gizonen (158) kasuak bikoiztu egiten dituzte.



Aipatzekoa da Bermeon gaur egun 322 pertsonen diru-laguntza jasotzen dutela, bere senideak etxean zaintzeagatik. Batzuk etxez etxeko zerbitzuaren bezeroak dira, prestazio hau osagarria izanik.

Pertsona nagusientzakoako bideratuta dauden beste zerbitzu batzuk hauek dira:

— Etxez etxeko zerbitzua:

Etxez Etxeko Zerbitzua, zerbitzu komunitario eta integrala da, osasun psikikoa, fisikoa eta gizarte ongizatearen arloan zailtasunak dauzkaten eta bakarrik bizi diran pertsonen zein familiei zuzenduta dago, beraien familia eta gizarte ingurunean bizitzen jarraitzeko behar daben autonomia sustatuz.

Etxez etxeko zerbitzuak onuradunari laguntza eman behar dio, berak bakarrik edo familiaren beharreko laguntzarekin egin ez ditzakeen jarduerak egiteko, bere gaitasun propioen garapena suspertuz eta bere menpekotasunaren maila handitu gabe.


Zerbitzuak eskaintzen dituen funtzioak batez ere etxeko lanak egiteari eta herritarrari eta norberaren atentzio pertsonalari dagozkie.

2016an etxez etxeko zerbitzuan 72 bezeroei arreta eman zaie.

Kolektiboari dagokionez %81 hirugarren adinekoa da. Arreta motari dagokionez, %48 atentzio pertsonalekoa da eta %36 atentzio pertsonala eta interinajea da, hau da, medikura lagundu, etxeko lanetan lagundu.

Bezeroen artean, %70ak menpekotasuna daukate. Aipatzekoa da etxez etxeko bezeroen %70ak etxean zaintzeagatik dagoen prestazio ekonomikoa jasotzen dutela.

ETXEZ ETXEKO BEZEROAK MENPEKOTASUN MAILAREN ARABERA



— Telesistentzia

Aurten 120 telesistentzia tramitatu dira.

— Gizarte larrialdietarako dirulaguntzak, %17 hirugarren adinari eman zaio, kasu gehienetan etxeke mantenimenduaren gastauak ordaintzeko izan dira.

— Autonomia pertsonala sustatzeko programak: 3

Alde batetik, mendekotasuna ager dadila prebenitzea helburu dutenak: Burua Martxan eta Gorputza Martxan programak. Burua Martxan programan, oroimena, arreta eta konzentrazio ariketak egiten dira buruaren funtzionamendua arintzeko. Gorputza Martxan programa ordea, koordinazioa, elastikotasuna, oreka eta indarra lantzen dauzan mantenuzko gimnasia da.

Beste alde batetik, mendekotasun egoeran daudenen artean, gaixotasunak aurrera egitea atzeratzea, eta, horretarako, pertsona horiek ahalik eta denbora gehienez autonomoak izan daitezela lortu nahi duen programa: dementzia daukien pertsonentzat psikoestimulazio tailerra. Dementzia lehenengo fasean daukien pertsonen, gaixotasunaren eboluzioa atzeratu, jakintza-gaitasun (orientazioa, lengoia, arrazionamendua,..) eta harremanak izateko gaitasunei eutsi, berreskuratu edota garatzeko taldeak egiten diran estimulazio saioak dira.

— Senitarteko zaintzaileentzat laguntza psikologiko taldea:



Programa honen helburua zaintzaileen bizi kalitatea hobetzea da. Mendekotasuna duen persona bat zaintzeak dakartzan barrikuntza eta


aldaketak gainkarga, antsietatea eta depresio gabe hartzea da programa honen asmoa, moldatze lan hori ahal dan neurrian erraztu eta arinduz. Antzeko egoeran dagozan familiak harremanetan jarrita, arazo eta konponbideak elkar banatzea lortzen da, elkartruke horrek eragin lasaigarri eta aberasgarria izaten daualarik.

- Zaharren Egoitzak: 2

Bermeoko Sancti Spiritus udal egoitza "kontzertatutako plazak dituen arretarako udal gunea da, batez ere, gizarte arloko beharizanak, beharizan fisikoak, psikologikoak edota ekonomikoak dituzten Bermeoko adineko pertsonentzat, mendekotasuna duten zein ez dutenentzat. Egoitzan banakako arreta integrala eta gizatiarra eskaintzen da, erabiltzaileen gizarte eta osasun ongizatea ziurtatzeko, eta egoiliarren autonomia, duintasuna eta garapen pertsonala bermatzeko". 67 plaza dauka.

Bezeroen profila aztertzen badogu, gehienak emakumeak dira menpekotasun maila altuekin, %91ak gradu II eta III dute eta 81-90 urte tartean daude.





Beste aldetik egoitz alai egoitza pribatua dago.


- Etxebizitza komunitarioa:


Bermeoko pertsona gaituei zuzendutako zerbitzua da. 9 plaza ditu. Egoiliarrek sartu eta irteteko askatasun osoa dute. Egoitzako zerbitzu guztiak eskura dituzte, hau da, sukaldea, errehabilitazioa, dinamizazio soziokulturala.

Goizez eta gabaz etxez etxeko laguntzaile bat joaten da, sukaldean, garbiketan, jatekoa eta botikak hartzen laguntzeko...

Etxebizitza komunitariora sartzeko menpekotasun arriskuan egotea edo gradu I-ekoa izatea eskatzen da.

Adinari dagokionez, %34 81-90 urte bitartekoak dira eta %67 emakumeak dira.





Bermeoko adinduek eguna egoitzan pasatzeko aukera dute. Zerbitzu hau pertsona gaituentzat eskaintzen da. Goizero, furgoneta joaten da pertsona hauen bila eta egoitzara ekartzen ditu. Egoitzan ematen dute eguna eta zerbitzu guztiak erabili ditzakete. Gauean, afaldu eta gero furgonetan bueltatzen dira etxera.

Gaur egun bost bezerori ematen zaie zerbitzua, eurentik hiru menpekotasun arriskuan daude eta beste biak gradu I-ean daude.

II eta III graduako bezeroei eguneko arreta eskaintzeko Ormabarrieta eguneko zentrua dago. Eguneko zentru honek 25 plaza ditu eta Diputazioarein kontzertatua dago.

Gizarte zerbitzuetaz gain udalak instalazio ezberdinak ditu (Kiroldedia, Gizarte eta Kultura etxea edota Nagusien Txokoa) kirol, aisialdi eta kultura jardura ezberdinak eskainiz.

2.1.3. Proiektu, Plan eta Programak

Osasun Sarea programa:

Egitasmoa honetan Osakidetza, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Bermeoko Udalako sail ezberdinak, ekintza ezberdinak lantzen ari dira. 2016. urtean batez be landun den programa bide osasuntsuak izan dira.

Datorren urterako, ibilbide osasuntzuarekin jarraitzea aurreikusi da, eta beste aldetik erorketak ekiditzeko tailer ezberdinak antolatzea.

Beste aldetik Bermeoko PACekin protokolo soziosanitarioa lantzen ari da. Protokolo honen helburua errekurtsio ezberdinen koordinazioa hobetzea da.

2.1.4. Eragileak

Azkenik aipatzekoa da Bermeoko elkarten lana. Elkate hauek herrian ekintza ezberdinak antolatzen dituzte, herritar guztieen ongizaterako, eta bizi kalitatea hobetzeko:

Kultur elkarteak:

- Itsasoko Jubilatuen Alkartea
- Demiku Bermeoko Jubilatuen elkarte
- AECC
- Haitz nagusije - bermeoko alde zaharreko auzo elkarte
- Besalde
- Herri babes
- Portu zaharra elkarte
- Herri Babes
- Gurutz gorria
- La Kapilla Rock elkarte
- Nuntxaku Kultur Elkarte
- La Kapilla Rock elkarte
- Asociación Coro Rociero Maika
- Saregiñek - Bermeoko emakume feministen elkarte
- Portuko Sorgiñe kultur taldea
- Kankinkabara txistu taldea
- Familiaren garapena elkarte
- Spookypheria Productions taldea
- Jakin badakigu informatika elkarte
- H. FACTORY-DXE literatura eta arte banda
- Gaztelugatxe Taldea
- Bermioko Irrintzilari elkarte
- Bermeoko Umeen Danborrada eta Erregeen Kabalgata (BUDEK)
- Bermeoko Erraldoien konpartsa
- Batun-Batun Aisialdi Kultur Elkarte
- Zantzue kultur taldea

- Alkartasuna dantza taldea
- Barrueta arte elkarte
- Bermeoko abesbatza
- Bermeoko Txistulariak
- Bermeotarrak fanfarrea
- Erroxape emakumeen elkarte
- Euskeraz berbetan taldea
- Asociacion Motera Izaro Bikers - Bermeo
- Itsuki irratia - Berko kultur taldea
- Izaro abesbatza
- Buztina zeramika taldea
- Kiñe bermeoko foruma
- Kokotxa kultur taldea
- MB 2000 alkarte
- Asociacion Sociocultural Bilbosalsa
- Txo Sevilla Dantza taldea
- Asociación Coro Rociero Maika
- Asociación de Bailes Caribeños "Dantzatu Gurekin"
- Jizz-Jazz
- Asociación de los senegaleses de Bermeo "Diapalante Sunu Biir"

Kirol elkarteak:

- Bermeo Elkartea (Karate)
- Urdaibai E.T.
- Xixili Taldea
- Bermeoko H.K. Zalea
- Judo Club Bermeo
- Sollube 707 Bermeoko M.T.
- Artza Bermeo
- Ehiza, Arrantza eta Tiro Elkartea
- Bermeoko Saskibalo Taldea
- Arkuzko Tiroaren Bermeoko Elkartea
- Arraun elkarteak
- Aritzatxu Triatlói taldea
- Txirindularitza taldea
- Bermeo Futbol taldea
- Taraska Atletismo Taldea

- Kickboxing Taldea
- Izaro-Sub taldea

2.2. EMAITZEN AZTERKETA: LAGUNKOITASUN GALDE-SORTA ETA TALDE-FOKALAK

Bermeoko lagunkoitasun maila neurtzeko eta aztertzeko, udalak eskainitako informazioarekin lan egiteaz gain, ikerketa parte-hartzaileko prozesu bati ekin zaio; bertan, azterketa kualitatibo bat (talde fokalen bidez) eta azterketa kuantitatibo bat (inkestaren bidez) egin da.

2.2.1. METODOLOGIA

Lagunkoitasun galde-sortekin, udalerriaren lagunkoitasun maila ezagutu da, adierazle kuantitatiboaren bidez. Informazioa biltzeko galde-sortak honela zabaltu dira:

- ✓ Bermeoko puntu estrategikoetan galde-sortak banandu dira, edozein herritarrek betetzeko aukera izateko: Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua, zaharren egoitza, Gizarte eta Kultura etxean, Berhaz bulegoan, liburutegian, kiroldegian.
- ✓ Herriko elkarte bitara bidali da, bazkideek betetzeko: Demiku elkarte eta Erroxape elkarte.

Bestalde, sei talde fokal gauzatu dira pertsona nagusiak eta horiekin lotutako hainbat gizarte eragilek udalerrian izandako esperientziak adierazteko.

Azterketa kualitatiboaren oinarritzko helburua «adineko pertsonetako lagunkoia» diren udalerriko alderdiak ezagutzea, detektatzen diren oztopoak eta arazoak nabarmentzea eta hobetzeko aukerak proposatzea izan da.

2.2.1.1. Lagunkoitasun galde-sorta

Danatara 129 galde-sorta jaso dira. Galde-sorta bete dutenen %79,1 emakumezkoa izan da eta %17,1 gizonezkoa.

Sexua		
Emakumezkoa	102	%79,1
Gizonezkoa	22	%17,1

Parte hartu dutenen batz besteko adina 67 urtekoa izan da. Gazteenak 26 urte eta zaharrenak 91 urte izanik.

Adina	
Batazbestekoa	66,62
Gitxienezkoa	26
Gehienezkoa	91

2.2.1.2. Talde fokalak: eraketa

Sei talde fokal burutu dira, honela banatuta:

- Pertsona nagusien senitarteko zaintzaileen talde bat.
- Pertsona nagusien lau talde.
- Zerbitzu hornitzaileen talde bat: udal zerbitzuetako profesionalek (Urigintza, Kirol, Berhaz, Gizarte Ongizate, Zaharren egoitza).

Talde fokal saioak burutzeko egunak:

- ✓ 1go Talde fokala zaintzaileak (Urriak 14)
- ✓ 2. Talde fokala pertsona nagusiak (Urriak 28)
- ✓ 3. Talde fokala pertsona nagusiak (Azaroak 25)
- ✓ 4. Talde fokala pertsona nagusiak (Abenduak 2)
- ✓ 5. Talde fokala pertsona nagusiak (Abenduak 9)
- ✓ 6. Talde fokala zerbitzu hornitzaileak (Abenduak 16)

Talde fokal saio bakoitzaren iraupena bi ordu ta erdikoa izan da, eta parte-hartzaile kopurua 6 eta 12 artekoa.


2.2.2. EMAITZAK

Atal honetan lagunkoitasun galde-sorta eta talde fokaletan batutako informazioa adierazten da. Informazio hau Vancouverko Protokoloko 8 ikerketa/ekintza eremuen arabera adierazten da.

ALDERDI OROKORRAK

Alderdi orokorrak						
	Batere ez	Gitxi	Nahiko	Asko	Erabat	ED/EE
Garbia	27,1	7,8	37,2	20,9	2,3	4,7
Zaratatsua	15,5	22,5	35,7	13,2	6,2	7
Atsegina	5,4	10,1	20,9	40,3	16,3	7
Merkea	26,4	26,4	34,1	6,2	3,9	3,1


Herriko alderdi orokorren artean atsegina izatea da goraipatu dena. Galdetutako %56k oso positiboki baloratzen dute Bermeon bizitzea. %15,5ek, ordea, esan dute ez dala atsegina.



Garbitasunari dagokionez, foku taldeetan garbitasuna mantentzeko herritarren kontzientzi falta agertu da:

"Garbitu, garbittuten da herridxe. Jentiegaitxik da loidxe."



"Garbitasunari dagokionez, nik pentsaten dot ez dauela herridxen kontzientzia bat herridxe jaboteko.... Eta hor arazo bat daku."



Txarren baloratu dana garestia izatea da. %52ak herria merkea ez dala edo gitxi dala esan du. Talde fokaletan ere bardin adierazi da:

"Karue da."

"... ematen dan zerbitzua ez du merezi eskatzen dan prezioarentzako: dendatan, tabernatan, zerbitzuetan eta orokorrean."



Alde positiboak

- ❖ Herri atsegina

Alde negatiboak

- ❖ Garbi mantentzeko herritarren kontzientzi falta.
- ❖ Garezia

Hobetzeko proposamenak


- ❖ Herritarren kontzientziazioa

1. AIRE ZABALEKO GUNEA ETARAIRAKINAK

PARKEAK, AIRE ZABALEKO GUNEA ETARAIRAKINAK

Parkeak eta aire zabaleko guneak						
	Batere ez	Gitxi	Nahiko	Asko	Erabat	ED/EE
Behar adina daude	13,2	20,9	30,2	20,2	8,5	7
Ondo zainduta daude	17,8	14	31,8	25,6	6,2	4,7
Ondo kokatuta daude	5,4	7	28,7	39,5	9,3	10,1
Ondo hornituta daude	23,3	28,7	26,4	13,2	3,9	4,7
Askotan joaten zara	22,5	18,6	17,8	21,7	9,3	10,1

Galde-sorta bete dutenen artean, hoberen baloratu dana kokapena izan da. %48,8k aire zabaleko guneak oso ondo kokatuta daudela esan dute.




Taldeetako parte-hartzaileek ere kokapena ondo baloratu dute:


"Parkiek orokorriren ondo kokatute dauz eta erabiltzen dauie asko. Eta talie hurrunau egon arren talakuek erabiltzen dauie. Nire ustez ondo dauz."

"Jente askok erabiltzen dauz eta lamerie beteta egoten da."

Parkeak: behar adina daude



Parkeak: askotan joaten da



Gehien baloratzen diran parkeak, lamera, tala eta erreten lamera dira.

"Erreten lamera, lamera y la tala están sobrecuidados."

"... lamerie oso politse."

"Erreten be politso dau"

"Talie total dau politso horman dibujuekaz eta."

Bestalde, Nardiz enparantza da txarren baloratzen dana. Talde desberdinetan aipatu dira enparantza honetako arazoak:

“Nire gizona taka takan dabil eta berenganie apurtute dau guztiz. Peligro bat da dana dau apurtute, behie altzata... ezin juen burbildun aulki bategaz.”

“...total dau aulki gitxi, etxetik bajaten dauie aulkidxeek jesarritze egoteko...”

“Aquel pavimento rojo que tiene está agrietado, en unos sitios hay unos trozos grandes y pasando con el carro y te puedes dar (un golpe), no está en condiciones. Aparte de los bancos no está en condiciones.”


Mugikortasun arazoak dituztenek Goiko plazako zoruagaitik ere kexatu dira:

“Goiko plazan adokiñek penie da kendutie baie burbildun aulkidxeen erun nauen ama ta salto saltoka keja ein zan. Ahal bada zati bet egokitu.”

“Medikunetik urten eta ibili gure izen dau gizonak baie laguntziñue eskatu biher izentsat andra bateri,... jeusi eingo nai dardakadan.”

“(Goiko plaza zeharkatzeko gune lisu bat)... Nik ez dot txarto ikusten hori ... agian bai imini beharko zan ibilbide bat (plaza zeharkatzeko, plazari buelta osue emon behar barik),....”

Inkestetan parkeak eta aire zabaleko guneak zainduta dauden galdetzean orokorrean ondo zainduta daudela erantzun dute.



Hala ere, hemen ere herritarren kontzientzi falta aipatu da aire zabaleko guneak zaintzeari buruz hitz egin danean:

“Orain urte batzuk jarri zien nagusiek gimnasia egiteko (makiñek). Jentiek ibiltzen dauz bai talan eta bai erretenen. Baie gaez dabiltzezen...ek austen daie. Udaleko langileek besti dauz soldaten.”

“Eta apurtu edozer, apurtu pedalak, apurtu umien jolaslekuek,... apurtu gaztiek,... ikaragarrixe da.


Herritarren kontzientzi faltatik aparte, mantenimiento falta ere komentatu dute:

“Kurtzion umiek bankuetako olak apurtu eta gero konpondu barik denpora asko.”

“Erreten lamera aulkidxe pintxeten hasi zien eta gero... ez diez segidu pintxeten eta nagusidxentzako pintxurie saltata... atrapa eitxen dosku erropak jesarlekuek.”

“Lamerako kolunpidxuen albuen dauen iturridxe eitxen da ataska eta pozo mando bat eitxen da. Orain gitxiau ze arreta berezidxe dau iturri horregaz, baie egidxe da.”

Bestalde, atal honetan txarren baloratu dana hornidura izan da. Galdeketa bete duten %52ak txarto hornituta daudela esan dute.



Eta gaikako taldeetakoek ere horrela adierazi dute:

“bankuen situasiñue... imiñi bankuek aurrez aurre edo borobildute, edo zeozertara, hori interesantie izengo lekide.”

"(Gimnasia eitxeko makiñetan)... enai allegaten pedaletara. Aprobetxa diez pedalak aulkidxeri, baie (distantzidxe) guretzako ez da. Ez da imiñi gauze bat bestientzako. Gizonak eta hanka luziek ibiltzen diez... eta ata guzti be halan dauz (postura desegokian). Sorbaldien pentsure para biher zara hori eitxeko. Baten batzuk aprobetxaten dauie baie..."

Komun publikoei dagokionez, danak nahiko ondo baloratu dira lamerakoa izan ezik:

"Lamerakue txarto. Diñoie limpiezie eitxen dauela goizien goizien. Jungo zara goiz erdidxen eta han dauen hatsa, ezin zara sartun, korridxen urtenbizu. Nik ezin dot aguinta"

"El de erreten lamera... dan miedo... porque se cierra solo para autolimpiarse..."

"Bermion jarri diez leku askotan komun automatikuek eta erretenekue izan ezik beste danak ez diez automatikuek. Apaño bat egin behar izen da automatikuek ez izateko eta garbitzailiek garbitzuteko eta horrek kristolako kostue dako, bakarrik garbitzuten diezela. Eta gero..."

"... jolaslekue da umientzako, uregaz globue beteten, ... jesarten gariezenok ez du gure izeten hurre jesarri, zenbat eta azau hobeto... umiek jolasten dabiltzezelako."

"... (guraso) batzuk ikusten dauie baie etsoie eitxen kasurik. Hau herridxena da eta ein biher da jabon baie harek imiek, edukaziño bako umiek dauz asko, danak ez baie asko. Eta nondik dator hori edukaziñue? Gurasuetatik.... Itzi eitxentsoielako."

"Txisa egiten badogu berenganien nahiz eta garbituta egon ba igarten da. Klaro, garbitzen dozu eta adibidez jarri diez errejillak bentiletako..."

"... irtenbidie ez da zaindaria,... pertsona bat badauen zaintzen be, errespetatu egingo da?"

Ez da pasaten goizeko 5etan, edo gaztiekin edo edanda, gauz esaten arratsaldeko 7etan gurasuek eta umiek... hau beste arazo bat da."

Proposamenak egin dira komun gehiago jartzeko:

"Talan bai falta da komun bet. Kantiñiek badako behien baie nagusidxe penaz ibiltzen diez. Beste kalien be badau (talan) baie nagusidxeri etsoie emoten astirik."

"komun gehidxau San andresen, Rufineko inguruen, Nardiz enparantzan, San miguel..."

Alde positiboak

- ❖ Parkeak eta aire zabaleko guneak ondo kokatuta daude

Alde negatiboak

- ❖ Parke batzuk ez dira egokiak. Nardiz enparantzaren zorua arriskutsua.
- ❖ Ez daude ondo hornituta: jesarleku eta gimnasia egiteko makina desegokiak
- ❖ Lamerako komun publikoan usain txarra egoten da
- ❖ Herritarrek orokorrean baina batez ere ume eta gazteek zikindu eta apurtzen egotea.


Hobetzeko proposamenak

- ❖ Nardiz enparantzako zorua konpontzea
- ❖ Lamerako komun publikoaren bentilazioa hobetzea
- ❖ Parkeak zaintzeko herritarren kontzientziazioa

KALEAK


Espaloiak eta kaleak						
	Batere ez	Gitxi	Nahiko	Asko	Erabat	ED/EE
Ondo zainduta daude	34,9	18,6	34,9	10,1	0,8	0,8
Irisgarriak dira	24	27,9	31	12,4	0,8	3,9
Atsedena hartzeko lekuak daude	8,5	27,1	31	23,3	7,8	2,3

Galde-sortak bete dutenen erdiak baino gehiagok espaloiak eta kaleak ez daudela ondo zainduta diote.



2tik 1ek dio kaleak eta espaloiak ez dirala batere ez irisgarriak edo gitxi dirala.

Espaloiak eta kaleak: irisgarriak dira



Antolatu diren batzar ezberdinetako parte hartzaileek ere kale eta espaloietako irisgarritasun arazo ezberdinak adierazi dituzte.

Alde batetik, kale batzutan espaloiak labankorrek dirala adierazi dute:

“Irakaskintza kalien patiñeten zuez.”

“Santa maria elizen alboko kalien be labandu eitxen dau (Bidebarrieta kalie)... berhaz-en kalien berdiñe dau.”

“Arresi kalien losak laban eitxen dauie asko, lehengo losak...”

Baina arazo honekin gehien aipatu dan gunea Fielatoko aldatza izan da:

“Fielatoko aldatza euridxe danien jeusi eitxen zara. Gasta dauie hori be ta imiñi dauie barandillek baie euri txistillekaz gizona beran muletakaz barandillieri agarrata, neuri lepotik agarrata beran burue ezin zuzendu... barandillie ta kruzeteko dardakadan: jeusi eingo nai! Neu zatitxu bera sujetaten allegateko losara.”

“Fielatoko aldatza dau total txarto. Ez da nehiku (egin dana), ondiño txarto dau.”

“Bota da produktu bat... ez da ikusten (jentiek ez dau nabarituko ikusmenagaz).”

Komentatu dan beste arazo bat espaloi batzuk estuak izatearena da; batez ere Brillasen aurrekoa, Ondarraburuko aldatza eta alde zaharrean:

"Brillas karnaseidxen aurrien losie iztue da."

"Brillasetik penas dau pasateko, oso iztue da."

"Ondarraburuko aldatzetik... pasaten diez sarri Infrisako kamioiek, autobus nagusidxe, behien topaten naienen gorantz juten, nik atzez eitxen dot... egunen baten pasa arte (istripu bet).... Losak oso txikidxe dakoz, autobusek eta kamioiek ibiltzeko... esaterako umien karruegaz ibiltzen izen naienen, emoten izentsat kale guztidxe bueltie. Auto txikidxe eta pasateko ondo baie kamioiek eta autobusek... (ez)."

"...aitxegaz neu be juten izen naitzenien silliegaz (burbildun aulkidxegaz Ondarraburuko aldatzan), bidera salta biher..."

"Alde zaharran leku gitxi dau pasateko oinezkie, iztu iztuek diez (espaloiak) ..."

"Nik silla de ruedasen duen andra bat jaboten izen dot eta esaten izen dost etorri hamendik Juan de Nardizetik eta nik: ez! Hobeto betik lamerara eta ezebez gehidxe, eztau lekorik."

"En la tala han tenido que sacar a mi marido mal para ir a la ambulancia en camilla, tienen que pasar por la carretera. Si quitarían medio metro la jardinera pasaría mucho mejor."

Horren aurrean, batzuk proposatu dute kale batzutan errepidea eta espaloia altura berean jartzea. Baina eztabaida eta zalantzak ere agertu dira hori konponbide bat ete dan.

"Losie eta bidie dana bat, zona batzutan behintzet! Alde zaharran batez be. Erretenen be."

"Ondo topaten dot mundekako entradan dauen moduen. Ondarraburun be ondo egongolekide, eztauelako lekorik."

"Orain, autuek errespetakolekidoskuie? Ze losiek errespetue emotentso autueri. Mundekan badau losie kolore batekue eta kalie beste kolore batekue eta han be auto asko dabiltzez. Orain, eztaipa gure herridxe?"

"Gerniken adibidez dau kale baten, baie beste kale askotan, gehidxenatan dakozen hemen dakogune. Eta horrek kaliek diez peatonalak. Eta bermion kale peatonala %100 ez dau askorik."

"Kale bat alde zaharran oinezkuentzat bakarrik itzitzie... hori da gauze bat ezin dana. Haretan etxietan bizi dan jentiek be kotxietan sartun gure dauie, urgentzi baterako edo ... hay que mirar a los demás también."

Irigarritasuna hobetzeko, Udalak espaloia batzuk beheratu zituen. Hala ere badaude oraindik beheratu beharra duten espaloiak:

"Kaleko losak karentzidxe dakoie burbildun aulkidxegaz juen biher bazara. Geroglifiko bat einbizu... nondik junbinai lamerara allegateko?"

"Bere garaian kanpainak egin ziran losak errebatzeko 2007 eta 2008 urtien eta juten diez eitxen puntualki..."

Beheratua duten espaloi batzuen kexak ere agertu dira gaikako talde ia guztietan. Baina ez da argi gelditu desagokitasuna labankorra izateagaitik edo inklinasio handia dutelako dan:

"Gorri borobildune labana da..."

"La bajante de los pasos de cebrá para ciegos es resbaladiza... intentando no pisar lo rojo. Hacen falta baldosas antideslizantes."

"A mi marido le falta una pierna... y va por la carretera porque también evita..."

"Borobildun losa gorridxe bajada handidxe dakoie (korreosen aurrien), muletakaz juteko penas."

"Bankoan aurreko zebra biderako be... tiene más pendiente, ... lepuek be klak eta burbildun aulkidxen bazuez, mandas bajaten zara."

"... igual pentsatenu zuezela ondo, ... lisuen kale guztidxen... baie (bajadatxuetik) pasakeran te coge de sorpresa y te puedes caer de morros."

Zebra bideak mailaz igotzeko proposamena egin da espaloiak beheratu behar ez izateko. Gainera horrek ibilgailuen abiadura murrizten lagunduko leuke. Teknikariak esandako moduan ez da bideragarria hori egitea leku guztietan baina agian aztertu liteke daudenak baino leku gehiagotan jartzea.

Beste arazo bat espaloia kotxeekin okupatuta izatearena da:

"Juan de Nardizen zeure konpraxuek eitxen zuez eta halako baten kotxie aparkata losien ta bidien... eztakozu kotxien tartetik nondik pasa."

"Astillaseneko peskadeidxetik harantz igual dakozuz 3 kotxe parata eta euridxe badan ganera... han egon bizara ... parata ... Baie nondik pasa biher nai? Hori dau peatoientzako txarto."


"Panadeidxe Mundakarran aurrien marmoleidxe dauen lekuen...kotxiek beti aparkata losan..."

"Cuando ponen el coche en doble fila (sancti spiritus aurrien) o el coche en la acera no puedo salir con la silla de ruedas"

"En la calle alboniga, trake osasun bulegoa hay un acceso que para silletas y sillas de ruedas... poco accesible porque hay coches que ocupan el acceso en la acera. No hay donde pasar. Tiene bajada pero es bajada ocupada por coches. Es raro que no estén aparcados los coches."

"Sarri askotan kotxie losan aparkaten dauie eta gero burbildun aulkiak ez dira pasaten. Hori ez gertatzeko proposatu zan piboteak imintzea. Baie pibotea ere oztopo bat da. Kontzientzia da aldatu behar dana."

Azkenik inkesten arabera, %35,6k atsedena hartzeko leku gitxi edo batere ez dagoela dio.



Batez ere menpekotasuna duten pertsonen zaintzaileek osatutako gaikako taldean, atsedena hartzeko lekuen falta adierazi dute. Aulki honen kokapen zehatza ondo aztertu beharra legokela diote, espaloian beste batzueri oztopo ez egiteko.

"Ama ibiltzen izen danien penas ibiltzen izen doten...eta beti faltan botaten izen dot losa baten banko bat deskantzateko. Kapaz da ibiltzeko baie ez luzero...eta burbildun aulkidxen imintzentsazunien... akaba da euren bizidxe...ta zuk hori (bizi kalitate) luzetu gure dozulez eitxen dozu esfortzu bet..."

“Ez dot gure gizona burbildun aulkidxen ibili, gure dot ahal dauen dana ibiltzie al dauen artien. Bizidxe eitxensazu luzetu. Herri guztidxen biher diez noizik behin bankuek.”

Alde negatiboak

- ❖ Espaloi batzuk labankorrek dira. Batez ere Fielatoko aldatzaren kasua.
- ❖ Espaloi batzuk oso estuak dira oinezkoentzat.
- ❖ Beheratuak dauden espaloi batzuen kexak: labankor edota inklinazio gehiegi dutelako
- ❖ Espaloiak kotxeekin okupatuta izatea
- ❖ Ez daude atsedena hartzeko behar adina leku.


Hobetzeko proposamenak

- ❖ Fielatoko aldatzaren kasua aztertzea
- ❖ Beheratuta dauden espaloi batzuen azterketa.
- ❖ Kontzientiazio kanpaina kotxeekin ez okupatzeko espaloia.
- ❖ Atsedena hartzeko leku gehiago jartzea.

HERRIKO SEGURTASUNA

Herriko segurtasuna						
	Batere ez	Gitxi	Nahiko	Asko	Erabat	ED/EE
Behar adina argi	13,2	22,5	27,1	27,1	6,2	3,9
Behar bezala zainduta	31,8	34,9	22,5	7,8	0,8	2,3
Lapurreta arriskua dago	20,9	12,4	24,8	24,8	10,1	7
Gune batzuetan arriskua	22,5	16,3	27,1	20,2	8,5	5,4

Inkesten arabera, %35,7k pentsatzen du herrian argi gitxi edo ez dagoela batere ez.



Gaikako taldeetan gune batzuetan argitasun falta dagoela komentatu dute, batez ere Tala aldetik:

"Argitasune (falta da) alde zaharrien, nardiz enparantzan, alboniga kalien."

"... Arostegin bai falta da."

"Nardiz enparantzan gabez ikarie (emoten dau)."

"...argi barik gauz.... San migelerako aldatzetik..."

"Balea tabernatik urtekeran karretera... apurtxu bet gorautxuau... ilunpie dau eta gabez, umiek eta be egoten diezelez zeuzer pasako da."


“Talakoetxea muy oscuro”

“Nautiketik talararte ez dau argirik. Batzuk diñoie baietz baie barrero apurtu dauela.”


“Talan komenta izen dauie argidxen faltie (berhaz buleguen).”

Berhaz bulegoan argitasun faltagaitik kexatzen diezenak pertsona nagusiak izaten dira eta gaikako talde batetan eztabaida sortu da estatu mailako araudiak argi mailak jaitsi behar dirala diñoelako. Udala administraziño moduen araudi hori betetzera behartuta dago baina pertsona nagusiak ikusmen arazoekaitik agian argi maila altuagoa behar dute.

Beste alde batetik, inkestetan 3tik 2k herria ez dagoela behar bezala zainduta diote. Eta %35ek lapurreta arriskua dagoela pentsatzen dute.




Segurtasuna: Lapurreta arriskua dago



Bestalde 10etik 4k, gune arriskutsuak daudela diote.

Segurtasuna: gune batzuetan arriskua dago



Gaikako taldeetan mota bitako arriskuak komentatu izan dira: jausteko arriskua eta bestelako arriskuak. Jausteko arriskuari dagokionez, puntu ezberdinak komentatu dira:

"Ondarraburu kalien... ni horma zaharran paretik enai pasaten ba, ahal badot enai pasaten, euridxe bada ganera... ezta jeusko gaur, bihar edo etzi... baie gitxien pentsaten danien amore emon ahal dau... konponduten ibiltzen diez baie ha hormie beti dau bertan."

"Talatik bajaten zaranien musika eskolan atzetik, jentie ez da konturetuten eskillarak diezela eta jeusi eitzen diez. Seinale bat imiñi biherko lekidaue jakitzeko eskillarak diezela."

"Alde meteorologikoari dagokionez, dekoguz puntu batzuk arriskutsuak dira eta denboraleak dagozenezan babestu egiten diez. Rompiolas, aritzatxun, talan haiziegaz, arramak eta jausten diez eta jartzen diez señaleak. .. ez sartzeko horra, arriskutsua dalako."

Txakurak solte egoteak dakarren beldurra eta jausteko arriskua ere komentatu izan dute batzar ezberdinetan:

"Kurtzion txakurrek sueto dabilte pertsona nagusidxe dauzen lekuetan (debekatute egon arren). Ta atentziñue deitsuten batsazu jauieri, problema bat dako zu."

"Nardiz enparantzan txakurren sueto egoten diez, bi edo hiru kruzeten bajatsuz... jentie istu jeusteko ikarie."

"Kanpo santuko kanpan txakurren solte (egon behar ez diezen lekuen). Gauze asko batuten diez hor: kontzientzi falta, arauak ez bete,... horren atzetik gauze asko dauz."

Bestelako arriskuei dagokienez, gune batzuk aipatu dira besteak baino arriskutsuagoak:

"Kurtzion... gaez ikarie emoten dau..."

"Ni etxera juteko handik (txibitxagako tunelatik) pasaten naizenien errespetue emoten dost. Argidxe badau... pasaten dana da errespetue sartzien dauela."

"Han ez da iñoiz ezer gertatu baina puntu baltza da pertzepziñoan."

Alde negatiboak

- ❖ Pertsona nagusien ustez ez dago behar adina argi
- ❖ Herria ez dago behar bezala zainduta
- ❖ Gune arriskutsu batzuk daude

Hobetzeko proposamenak


- ❖ Argitasun maila edota argitasun puntuen azterketa
- ❖ Herriko zainketa gehiagotzea
- ❖ Gune batzuk konpontzea arriskua murrizteko

2. GARRAIOA


AUTOBUSA

Autobusa						
	Batere ez	Gitxi	Nahiko	Asko	Erabat	ED/EE
Behar adina geroaleku	9,3	17,1	20,9	36,4	11,6	4,7
Ibilbideak eta maiztasuna onargarriak	10,9	15,5	23,3	34,1	10,1	6,2
Prezioa arrazoizkoa da	25,6	14	27,9	20,2	7,8	4,7
Askotan erabiltzen dozu	17,1	13,2	31,8	22,5	8,5	7


Inkestak bete dutenen erdiak, behar adina geroaleku daudela pentsatzen dute. %44,2ak autobusaren ibilbideak eta maiztasuna onargarriak direla diote. Eta 3tik 1ek autobusa askotan erabiltzen duela dio.




Autobusa: ibilbidea eta maiztasuna onargarriak dira



Autobusa: prezioa arrazoizkoa da





Gaikako taldeetan bermibus eta bizkaibuseri buruz berba egin da. Bermibuseri dagokionez, orokorrean oso positiboki baloratzen da herrian zehar mugitzeko autobusa jarri izana.

"Nik asko ibiltzen dot eta ez dakot kejarik."

"...ondo topaten dot... juten nai, baja ez baie idxen bai."

"Ordutegidxez ondo, paradak be imiñi dauie bi gehidxau eta nik ez dot useten asko baie nire gizonak bai... arritmia topatsoie ...cuando empieza a subir una cuesta empieza a fatigarse, neuk asmatentsat (arnasie hartun eziñik)."

"Horretaz egin zan... inkesta bat ... pertsona nagusiei, ... eta gehien baloratzen zuten zerbitzua da. Oso pozik zeuden."

Hala ere, mugikortasun arazoren bat dutenak arazo batzuk azaldu dituzte:

"Es incomodo para una persona que tiene algun problema, hay escaleras para ir a la parte de atrás."

"Bizkaibusek adibidez rampa bat dako pasilluen (ez eskillarak)... eso es lo que yo veo que no debería de tener."

"Gero barruen silleta gemelar bat kuadraten bajatsu... ez dako zu lekorik bez. No hay espacio para sentar."

Batez ere bermibuseko arrapala izan da gehien aipatu dan arazoa:

"Bermibuseko autobuse eztau preparata pertsona nagusi eta minusbaliduentzat. Una persona con muletas se arregla mal."

"EL conductor te ayuda mucho, a subir por la rampa."

"...esan einbitsazu rampie bajateko."

"Nire gizonak etso eskatuko ez molestatiarren..."

"No se debería tener que pedir bajar la rampa..."

"Losan onduen gelditxuten bada (bermibuse) rampie laburtxuau da baie gelditxuten bada losatik hurrin ba dako zu metro laurden eta guretzako txarra... eta nagusidxentzako ez diñotsut ezebe! Ez dau losa bat libre, kotxerik ez dauenik."

"Geraleku horrek (losarik ez dakoi enak) diez justu justu anbulategian, haurreskolan,... eta karru bategaz bazuez... hori beharko zan... edo losa edo prefabrikatu bat."

Prezioa garetia dala adierazi dute eta merkeagoa izan beharko litzatekela. Geltokietan markesina eta altuera egokia duten jesarlekuak falta direla ere komentatu dute. Geltoki nagusienetan gitxienez markesinak jartzea proposatu dute:

"Eztauz paradak aterpiegaz."

"Goiko bbk-an aurien (Erreñezubi) paradan banko bat imindxe dau baie bajue da, gero kosta eitxen da altzatie."

Alde positiboak

- ❖ Herri barruan mugitzeko autobusa edukitzea oso positiboki baloratua da.

Alde negatiboak

- ❖ Garetia da

- ❖ Bermibus barruan eskilarak edukitzea.
- ❖ Sarri askotan bermibuseko arrapala modu desegokian (espaloiatik kanpo) gelditzea.
- ❖ Geltokietan jesarleku eta aterperik ez egotea.

Hobetzeko proposamenak

- ❖ Espaloiak egitea, ez dauden lekuetan.
- ❖ Geltoki nagusietan markesinak jartzea.

Bizkaibusa ere orokorrien ondo baloratu arren, hemen ere arazo batzuk azaldu dira:

"Bizkaibusek bakarrik dakozen ordu batzutan burbildun aulkiduen idazteko."

"Segun ze ordutan gure dozun hartu bizkaibuse sollubetik duena lamerako paradara jun biher zara, ze bestela ez dakozu jesarlekurik. Gernikeko bizkaibuse ordu erdirik ordu erdira ukin biharrien, hobeto da sollubetik duena ordu erdirik ordu erdira, jente gehidxauek eta."

"Por otra parte no hay autobuses que van directamente a Cruces..."

"...aurkeztu diez 800 sinadura eskatzen berreskuratzeko agarrerako sarrera, hizkuntza eskola eta erresidentzira joaten diezenantzat. Erresidentzira pertsona nagusi asko doaz bisitan, ordutegia edo zerbitzua aldatu da, hau da, ez diez sartzen zerbitzu guztiak. Azkenean 800 sinadura batu dituzte eta aurkeztu dute udalan eta foru aldundian. Udalak be egin dauz... proposamenak. Hori azkenean aldundiaren esku gelditzen da."

Alde positiboak

- ❖ Bizkaibusan ibilbideak eta maiztasuna onargarriak dira.

Alde negatiboak

- ❖ Garetzia da
- ❖ Burbildun aulkientzako plataforma zerbitzua ez dago beti.
- ❖ Ordu batzuetan ez dago jesarleku lekurik.
- ❖ Helmuga batzuk gehitzeko beharrezana, duten garrantziagaitik.


Hobetzeko proposamenak


